



ZEGAMAKO UDALA

2025EKO IRAILAREN 16AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten den gai zerrendarekin ohiko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2025EKO UZTAILAREN 1EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURARENA).

2.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.

3. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2025-KALD-000003-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA

4.- ZEGAMAKO OSTATUA USTIATZEKO ETA KUDEATZEKO BALDINTZA ERREGULATZAILEEN PLEGUEN ONARPENA ETA LIZITAZIOA BIDERATZEA.

5.- ZEGAMAKO UDAL ERAIKINAK ETA LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO, ETA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ETA ERABILERA ANITZEKO ZENTROKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO (ETXEBIZITZA TUTELATUAK ETA EGUNEKO ZENTROA), PROZEDURA IREKI BIDEZKO BALDINTZA ERREGULATZAILEEN PLEGUEN ONARPENA ETA LIZITAZIOA BIDERATZEA.

6.- LANGILEEI % 0,5EKO ORDAINSARI IGOERA OSAGARRIA, 2024.01.01ETIK AURRERAKO ONDORIOEKIN ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

7.- TOBERA MUSIKA ESKOLARI 2024/2025 IKASTURTEKO EKARPEN EKONOMIKOA EGITEA, HALA BADAGOKIO.

7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

8.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Iker Zubeldia Katarain jn. (EH Bildu).

ZINEGOTZIAK

Ainhoa Herrasti Areitio and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Nagore Arrieta Aranza and. (EH Bildu).



ZEGAMA KO UDALA

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)
Alina Dumitru and. (Zegama Lantzen).

EZ ETORRITAKOAK

Denis Pérez Apaolaza jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2025EKO UZTAILAREN 1EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURARENA).

Alkateak, 2025eko uztailaren 1eko bilkuren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

2.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.

Alkatetza Ebazpen bidez onartutako honako faktura-zerrenden berri ematen da (2025eko irailaren 8ko Kontuen Batzordean aztertu eta oniritzia jasotakoak), dagokion gastua onartuz eta ordainketa egitea bideratuz.

- 10 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina 3); guztira 140.955,64 euro.
- 11 zenbakidun fakturen erlazioa (uztaila); guztira 126.767,39 euro.
- 12 zenbakidun fakturen erlazioa (abuztua); guztira 47.773,08 euro.
- 13 zenbakidun fakturen erlazioa (iraila); guztira 89.846,99 euro.

3. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2025-KALD-000003-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz,



ZEGAMA KO UDALA

honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	49.042,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	7.978,58
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		57.020,58

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	57.020,58
GUZTIRA		57.020,58

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

4.- ZEGAMA KO OSTATUA USTIATZEKO ETA KUDEATZEKO BALDINTZA ERREGULATZAILEEN PLEGUEN ONARPENA ETA LIZITAZIOA BIDERATZEA.

Espedientea ikusirik.

Alkateak, azaltzen du Udalbatzarrak 2025eko otsailaren 11n egindako bilkuran erabaki zuela Zegamako Ostatuaren zerbitzua ustiatzeko kontratua Eduardo Cuesta Alonso y Otra CB enpresari esleitzea.

Zentzu honetan azaltzen du, Eduardo Cuesta Alonsok, arrazoi pertsonalen ondorioz, Udalari zerbitzua uzteko bere borondate adierazi ziola. Eta horrenbestez, hau Udalarekin hau bideratzea adostu ondoren, formalki, zerbitzua uzteko jakinarazpena aurkeztu duela. Era berean, adierazten da, zerbitzuan dauden langileekiko lan harreman guztiak amaituko direla jakinarazi zaiola Udalari, eta horrenbestez, ez dela langileen subrogazio tularik jasoko.



ZEGAMAKO UDALA

Ondorioz, zerbitzua lehenbailehen prestatzen jarraitzeko komenigarritasuna ikusirik, urtarrilaren 14ko Hirigintza eta zerbitzuen bilkuran azaldutako agirien arabera eta presazko prozedurarekin, kontratazio deialdi berri bat bideratzea proposatzen da.

Horiek ikusi eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako kide guztien aldeko botuekin, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako agiriak onartzea, eta horien arabera, kontratazio prozedura onartzea.

Bigarrena.- Lehiaketa hau arautuko duten plegu eta agiriak, Euskadiko Kontratazio Publikoen Plataforman, ohikoak diren hedabideentan, Udaletxeko iragarki oholean eta udaleko web gunean argitaratzea.

5.- ZEGAMAKO UDAL ERAIKINAK ETA LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO, ETA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ETA ERABILERA ANITZEKO ZENTROKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO (ETXEBIZITZA TUTELATUAK ETA EGUNEKO ZENTROA), PROZEDURA IREKI BIDEZKO BALDINTZA ERREGULATZAILEEN PLEGUEN ONARPENA ETA LIZITAZIOA BIDERATZEA.

Gaia mahai gainean uztea adosten da.

6.- LANGILEEI % 0,5EKO ORDAINSARI IGOERA OSAGARRIA, 2024.01.01ETIK AURRERAKO ONDORIOEKIN ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkateak azaltzen du, Eudeletik ondorengo gomendioa bidali da:

Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2.b) artikuluan aurreikusitako sektore publikoko langileen ordainsarien %0,5eko gehikuntza osagarria onartzea. Dekretu horretan Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri ematen ditu eta zerga, energia eta gizarte arloko premiazko neurriak hartzen ditu.

Igoera hori 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Horiek ikusi eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako kide guztien aldeko botuekin, honako hau erabakitzen du:

- Ahobatez onartzen da Udaleko langileen soldatan Eudelek proposatutako igoera aplikatzea.

-Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaleko iragarki oholean argitaratzea.

7.- TOBERA MUSIKA ESKOLARI 2024/2025 IKASTURTEKO EKARPEN EKONOMIKOA EGITEA, HALA BADAGOKIO.



ZEGAMAKO UDALA

Alkateak adierazten du Tobera Musika Eskolatik, udal-finantzaketarako argibideak eta kalkuluen agiria aurkeztu zirela.

Adierazitako agirian jasotako argibideak eta zenbatekoak ikusirik.

Indarrean den erabakiaren arbera, ikasturte batean udalak eman beharreko diru-laguntza, iazko ikasturtean herri horretako ikasleak egindako matrikulen batez besteko kostuaren gainean kalkulatu da. Horrenbestez, 2024/2025 ikasturtean udalek egingo duten ekarpena zehazteko, 2023/2024 ikasturteko balantzea erabiliko da, matrikulako batez besteko kostu orokorra kalkulatzeko, eta ikasturte horretako herrikako matrikulazio-datuekin biderkatuko da emaitza. Emaitza hau, 2016ko maiatzaren 10eko akordioan agertzen den ehunekoarekin (%22^a Zegamaren kasuan) biderkatuta lortuko litzateke.

Zentzu horretan, Zegamako Udalari dagokion ekarpena, 24.301,00 eurokoa izango litzateke (2025eko aurrekontuaren kargura).

Adierazitako laguntza, 2025-2028 epealdirako dirulaguntzen Plan Estrategikoko 5. lerro estrategikoan (Kulturaren sustapena), jasota dago, eta Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorreko 14. artikulua (emakida zuzeneko diru laguntzen tramitazioa) adierazitakoa betetzen da.

Horrenbestez, aurkeztutako agiriak aztertu eta eztabaidatu ondoren eta ogasun batzordean aldeko iritzia jaso ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Tobera Musika Eskolari, 2024/2025 ikasturteari dagokionez, 24.301,00 euroko ekarpena bideatzea onartzea.

Bigarrena.- Adierazitako gastua onartzea, 2022ko Aurrekontu Orokorraren 1.0000.481.01.326.00.2025 aurrekontu sailari egotziz.

Hirugarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

8.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 38/0625, erabakia, ekainaren 27koa, 10/2025 zenbakidun fakturen erlazioa (Ekaina-3) onartuz; guztira 140.955,64 euro.
- 01/0725, erabakia, uztailaren 1ekoa, GIPUZKOAKO BASO ELKARTEA-k, Zegamako udalerraren eremuan dauden 12tik 20ra eta 26-27 poligonoetako landalurren mugen jasotze topografikoaren zerbitzuaren kontratazioagatik ezarritako 2.479,33 euroko fidantza itzuliz.
- 02/0725, erabakia, uztailaren 4koa, egurra ateratzeko baimena emanaz eta fidantza ezarriz.



ZEGAMAKO UDALA

- 03/0725, erabakia, uztailaren 10ekoa, egurra ateratzeko baimena eman ez eta fidantza ezarriz.
- 04/0725, erabakia, uztailaren 14koa, 11/2025 zenbakidun fakturen erlazioa (Uztaila) onartuz; guztira 126.767,39 euro.
- 05/0725, erabakia, uztailaren 15ekoa, obra txikiko hirigintza-baimena emateari buruzkoa.
- 06/0725, erabakia, uztailaren 17koa, San Bartolome jaietako postu eta barraken baimena emateari buruzkoa.
- 07/0725, erabakia, uztailaren 17koa, San Bartolome jaietako postu eta barraken baimena emateari buruzkoa.
- 08/0725, erabakia, uztailaren 17koa San Bartolome jaietako postu eta barraken baimena emateari buruzkoa.
- 09/0725, erabakia, uztailaren 17koa San Bartolome jaietako postu eta barraken baimena emateari buruzkoa.
- 010/0725, erabakia, uztailaren 17koa San Bartolome jaietako postu eta barraken baimena emateari buruzkoa.
- 011/0725, erabakia, uztailaren 17koa San Bartolome jaietako postu eta barraken baimena emateari buruzkoa.
- 012/0725, erabakia, uztailaren 17koa San Bartolome jaietako postu eta barraken baimena emateari buruzkoa.
- 013/0725, erabakia, uztailaren 16koa, Goierriko Hitzari, 2025eko dirulaguntza emateari buruzkoa (4.764,78 euro).
- 014/0725, erabakia, uztailaren 17koa, Goizalde Eskaut Taldeak kanpalekua antolatzeke eskatutakoa onartuz.
- 015/0725, erabakia, uztailaren 22koa, San Bartolome 7an garajea banatzeko baimena eman ez.
- 016/0725, erabakia, uztailaren 22koa, egurra ateratzeko baimena eman ez eta fidantza ezarriz.
- 017/0725, erabakia, uztailaren 22koa, egurra ateratzeko baimena eman ez eta fidantza ezarriz.
- 018/0725, erabakia, uztailaren 23koa, Orkatz abesbatzari San Bartolome jaietan txosna jartzeko baimena eman ez.
- 019/0725, erabakia, uztailaren 29koa, igerilekuko taberna zerbitzua eskuratzeko zerbitzu-kontratu txikia esleituz.
- 020/0725, erabakia, uztailaren 29koa, bitarteko Udal-Idazkariaren alta eta ordezkioaren kontratu amaierari buruzkoa.

- 01/0825, erabakia, abuztuaren 4koa, 12/2025 zenbakidun fakturen erlazioa (Abuztua); onartuz; guztira 47.773,08 euro.
- 02/0825, erabakia, abuztuaren 5koa, NED SUMINISTRO GLP S.A.. enpresak 2025 ekitaldiaren 1.seihileko epeari dagokion udal jabari publikoa diren lurretan jarri diren hornidura garraiatzeko instalazioak direla eta, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa onartuz.



ZEGAMA KO UDALA

- 03/0825, erabakia, abuztuaren 5koa, ORANGE ESPAGNE S.A.U enpresak 2025 ekitaldiaren 1.seihileko epeari dagokion udal jabari publikoa diren lurretan jarri diren hornidura garraiatzeko instalazioak direla eta, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa onartuz.
- 04/0825, erabakia, abuztuaren 14koa, San Bartolome jaietako postu eta barraken baimena emateari buruzkoa.
- 05/0825, erabakia, abuztuaren 29koa, 2025 ekitaldiko aurrekontuko 3/2025 kreditu aldaketaren espedienteari hasiera emanez.

- 01/0925, erabakia, irailaren 2koa, 13/2025 zenbakidun fakturen erlazioa (Iraila) onartuz; guztira 89.846,99 euro.
- 02/0925, erabakia, irailaren 9koa, ezkontza baimentzeko ahalmena Aritz Agirre Garikano zinegotziari eskuordetuz.
- 03/0925, erabakia, irailaren 10ekoa, harrerako administrari-laguntzaile lanetarako kontratatutako pertsonaren antzinatasun eskaera espedienteari hasiera emanez.
- 04/0925, erabakia, irailaren 10ekoa, harrerako administrari-laguntzaile lanetarako kontratatutako pertsonaren antzinatasuna onartuz.
- 05/0925, erabakia, irailaren 10ekoa, udal Idazkari-Kontuhartzaileak telelana bidez egun batzuetan etxetik lan egiteko egindako eskaera onartuz.
- 06/0925, erabakia, irailaren 10ekoa, Santa Barbara 1c atarian etxea eskualdatzeko borondatearen jakinarazpena jaso ondoren, Deskribatutako lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeko bost urteko epea igaro dela deklaratzuz eta, ondorioz, eskatutako eskualdatzea bidezkoa dela adieraziz.
- 07/0925, erabakia, irailaren 11koa, 2/2025 kreditu aldaketaren espedientea behin betikoz onartuz.

Era berean, Alkateak azaltzen du, zerrendan jasotzen ez diren bi ebazpen eman direla, aldi-baterako administrari laguntzaile bat eta peoi bat kontratatzeko deialdiak onartuz.

9.- GALDE ERANTZUNAK.

- Ainhoa Herrasti Areitio zinegotziak (EH Bildu) azaltzen du Berdinbidean programaren plangintzan formakuntzak egingo direla zinegotzi eta langileentzat.
- Izaskun Igoa Arizcorreta zinegotziak (Zegama Lantzen) San Bartolome jaien balorazioaz galdetzen du, eta horri erantzunez, bilkurakideak, honako gai hauei buruz eztabaidatzen dute:
 - Zenbait ekintza ordu berdinean burutu direla adierazten da.
 - Herri afarian janari asko sobran geratu izanaren arrazoiak. Tiketak erosteko prozeduretz hitz egiten da.



ZEGAMA KO UDALA

- Antolatutako musika kontzertuei buruz hitz egiten da.
- Izaskun Igoa Arizcorreta zinegotziak (Zegama Lantzen) Kinto eguneko bazkariaren balorazioaz galdetzen du. Bilkurakideak gaiaz hitz egiten dute.
- Bilkurakideak, Sant Sadurní d'Anoia eta Seu d'Urgelleko irteeren aurreikuspenei buruzko azalpenak ematen ditu.
- Nagore Arrieta Aranza zinegotziak (EH Bildu) ostegunean Euskadi Lagunkoia programaren hitzaldia eskainiko dela azaltzen du. Era berean, hilaren bukaera burutuko den jubilatuen egunari buruzko zenbait azalpen ematen dira.
- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu), kiroldegiko desfibriladorea kokatzen den lekutik, altueran jeisteko jaso den eskaera azaltzen du. Zentzu horretan, altueran jeitsiz gero, hau kaltetzeko egon daitekeen arriskuari buruzko bere kezka azaltzen du. Araudiak dioenaren arabera, desfibriladorea 1,20-1,50 metro artean kokatu beharko litzatekeela azaltzen da. Eskaerari erantzuna emango zaiola azaltzen da ere.

Aztertze ko gai gehi go ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak eta hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.